

1.- DATA ETA LEKUA

Txirrita Mendi Lasterketa 2026ko ekainaren 21ean izango da, goizeko 9:30ean. Abiapuntua eta helmuga Altzako San Martzial plazan izango dira.

2.- IBILBIDEA

Txoritokieta eta Bizarain/San Marko inguruko baso eta bideetatik zehar izango da, Altzako San Martzial plazatik hasita, eta 16,6 kilometroko luzera izango du. Ibilbidea eta bi kilometroko tartearik behar bezala seinaleztatuta egongo dira, kartelen bidez. Helmugakoaz gain, hiru hornidura postu atonduko dira; bat 5,5. kilometroan, beste bat 7,5. kilometroan eta beste azken bat, 11,4. kilometroan. Postu horietan parte hartzaileei edariak eta jatekoa eskainiko zaizkie (lehenengoan edatekoa soilik). Zabor gutxiago sortzeko helburuarekin, korrikalariak eskatzen zaie baso berrerabilgarri bat eraman dezatela, poltsikoan gorde daitekeen horietakoa.

3.- IZEN-EMATEA

Mendi lasterketan parte hartzeko, bi aukera egongo dira: banakako lasterketa eta erreleboko lasterketa mixtoa (bikoteka). Lasterketariak izen ematerako garaian zehaztu beharko dute bi modalitateetako zeinetan arituko diren. Bi modalitateetako batean soilik eman ahalko da izena. Banakako proban parte hartzeko, 22€ ordaindu beharko dira; errelebo lasterketan, aldiz, 35€ bikoteko. Izena emateko epea 2026ko martxoaren 26tik (18:00) 2026ko ekainaren 7ra arte (20:00) izango da. Izen-emateak <https://www.kronoak.com/eu> bitartez bideratuko dira. Behin izena emanda, ez da dirurik itzuliko. Izen-emateak honako hauek bermatzen ditu: • Lasterketan parte hartzeko eskubidea. • Txip bidezko kronometraje-zerbitzua. • Istripu-asegurua. • Erantzukizun zibileko asegurua. • Osasun-laguntza lasterketan. • Oparien zozketan parte-hartzea. • Hornidura postuetako janaria eta edaria. • Dutxa eta kontsigna zerbitzuak. Azkenik, korrikalari batek izenik eman gabe, edo beste pertsona baten zenbakiarekin, haren identitatea ordeztuz, proban parte hartzen badu, antolakuntzak zigortu egingo ditu eta ez dute ondorengo edizioetan parte hartzerik izango, eta egunean bertan parte hartu duen pertsona deskalifikatuta izango da. Bestalde, zerbait gertatuko balitz, antolatzailarenak diren bitartekoek ezingo liekete arreta eskaini korrikalari horiei.

4.- ERRELEBO LASTERKETA

Modalitate honetan parte hartzeko, bikoteko kide batek, gutxienez, emakumea izan beharko du. Lehen korrikalariak irteeratik Txoritokitara bitarteko ibilbidea gauzatu beharko du (7,5km), eta bertan eremu jakin bat egongo da erreleboa emateko. Erreleboa emateko “lekukoa” bikotekideari pasa beharko zaio. Lekuko hori korrikalariak horkatilean eraman beharko duten “txip” moduko bat izango da. Behin lekukoa batetik bestera pasatzerakoan, bigarren korrikalariak Txoritokitako gotorlekutik Altzako helmugarainoko bidea egin beharko du, eta bertan antolakuntzakoei lekukoa entregatu. Zernahi arrazoiengatik, lasterketaren uneren batean bikoteak lekukoa galduko eta helmugan hura entregatzerik izango ez balu, bikoteak hartu beharko du bere gain lekukoaren gastua (7 euro).

5.- KORRIKALARIEN ZENBAKIEN BANAKETA

Korrikalarien poltsak (dagozkien zenbakiekin) Altzako elizaren arkupetan banatuko dira, lasterketaren egunean, 7:30etik 9:15era arte. Zenbakiak bularrean jarri behar dira, argi eta garbi ikusgai.

6.- ZAINZA ZERBITZUA ETA DUTXAK

Elizako arkupeetan motxilak uzteko zaindegia egongo da lasterketan zehar. Motxila horiek bi begiraleren eskuetan egongo dira uneoro. Dutxen kasuan, plazatik gertu egongo dira aldagelak.

7.- MAILAK

16 urtetik gorakoek soilik parte har dezakete. Banakako proban, bi maila izango dira: absolutua (16 eta 44 urte bitartekoentzat) eta beteranoen maila (45 urtetatik gorakoentzat), kategoria orokorrean eta emakumezkoenean. • Erreleboetan maila bakarra egongo da.

8.- SAILKAPENA

Lasterketaren kronometrajeaz Kronoak arduratuko da. Deskalifikatzeko arrazoiak: •korrikalariak zeharbideak hartzea edo ibilbide osoa ez egitea, • korrikalariak zaborra edozein tokitan botatzea eta ez prestatutako lekuetan, • Korrikalariak animaliak eta landareak ez errespetatzea, • Korrikalariak gainerako partaideekiko kirol-kontrako jarrera mantentzea, • korrikalariak erakundearen argibideak aintzat ez hartzea, • korrikalari batek zenbaki gabe korrika egitea eta • korrikalari batek beste baten zenbakia eramatea • korrikalari batek beste bati sorospena ez ematea, abisua ez ematea edo laguntzari entzungor egitea.

9.- SARIAK

Bakarkako lasterketan, honako sariak egongo dira: • Sailkapen orokorreko lehen hirurentzat, eta lehen hiru emakumezkoentzat. • Lehen beteranoarentzat, eta emakumezko lehen beteranoarentzat. • Horiez gain, lehen altzatarrentzat eta emakumezko lehen altzatarrentzat ere saria egongo da. Errelebo lasterketari dagokionez, lehen hiru bikoteek izango dute saria.

10.- OPARIAK

Lasterketa posible egiten duten hainbat babesleren produktuak izango dira korrikalari bakoitzaren poltsan. Era berean, lasterketako hainbat produktu ere egongo dira bertan..

11.- SEGURTASUNA

Udaltzain, boluntario eta Gurutze Gorrikoen laguntzaz, antolatzaileek lasterketa ondo kudeatzea eta arazorik ez izatea bermatuko dute. Antolakuntzak eskubide osoa izango du proba beste ibilbide batetik desbideratzeko, beharrezkotzat jo liratekeen aldaketak egiteko eta, eguraldiak edota beste eragileren batek behartuta balego, lasterketa bertan behera uzteko.

12.-ERANTZUKIZUNA

Txirrita Mendi Lasterketan izena emanda dauden parte-hartzaile guztiek proban borondatez eta euren ardurapean parte hartzen dute. Norberak bere gain hartu beharko du kirol jarduerak dakarren arriskua. Parte-hartzaile guztiei aurrez osasun-azterketa egitea gomendatzen zaie. Bestalde, antolakuntzak Ardura Zibileko eta Istripuko aseguruak izango ditu parte-hartzaileentzat. Hala ere, antolakuntza ez da

inoiz, norberaren egoeratik edo ekintzengatik sortutako ezbeharren, zuhurtziagabekeriaren, arduragabekeriaren, gaixotasunen, arazo fisikoen, arauak eta arautegia ez betetzearen edo proba egiten den lekura joan-etorrietan sortutako istripuen erantzule izango. Parte-hartzaileek, salbuetsi, uko egin eta libratu egiten dituzte erakunde antolatzailea, laguntzaileak, babesleak eta beste korrikalariak partaideekiko eta haien oinordeekiko izan ditzaketen erantzukizun zibileko arduretatik, eta onartzen dute antolakuntzaren, laguntzaileen, babesleen eta beste partaideen aurkako salaketarik ez dutela jarriko. Halaber, parte-hartzaileek betekizun izanen dute istripuren bat izan duen edonor laguntzea eta kontrol-guneetan edozein ezbeharren berri ematea.

13.- KONTROLAK

Ibilbidearen luze-zabalean, antolakuntzak kontrol-guneak jarriko ditu eta bertatik igarotzea ezinbestekoa izango da.

14.- INGURUMENA

Lasterketa mendi inguru eta bideetatik igaroko da. Beraz, tokiok behar bezala zaintzeko, parte-hartzaile guztiek zaborra hornidura postuetatik gertu jarriko diren zakarrontzietara soilik bota dezakete. Bestalde, animaliak eta landareak errespetatzea nahiz ibilbidean zehar zeharbideak ez hartzea ezinbestekoa da. Natura-ingurunearen errespetuarekin eta zaintzarekin lotuta partehartzaileentzako arauak eta betebeharrak: • Ingurumena errespetatu. Ez kaltetu baliabide natural, geologiko, kulturalak... • Antolakuntzak ezarritako eta markatutako ibilbidea errespetatu, bertatik irten gabe. • Ez bota zaborrik (hondakinak, bilgarriak, janaria, materiala,...) antolakuntzak baimendutako lekuetan izan ezik. • Beste parte-hartzaileen ingurumen-jokaera arduragabeak antolakuntzari jakinarazi. Ingurumen-arau hauek ez betetzea, zigortzeko eta/edo deskalifikaziorako arrazoia izango da.

15.- IRUDI ESKUBIDEAK

Parte hartzaile bakoitzak ontzat ematen du antolatzaileek ateratako argazki edo bideoetan euren irudia libreki erabiltzeko eskubidea.

16.- DATUEN BABESA

Parte-hartzaileek euren datu pertsonalak kirol helburuetarako erabiltzeko baimena ematen dute.

17.- ARAUDIAREN ONARPENA

Lehiaketan parte hartze hutsak arauok onartzea dakar.

1.- FECHA Y LUGAR

La prueba Txirrita Mendi Lasterketa se celebrará el próximo 21 de junio de 2026, a las 9:30 de la mañana. La salida y la llegada estarán en la plaza de San Marcial de Altza.

2.- RECORRIDO

Recorrerá los montes y bosques y camisnos de Txoritokieta y San Marcos y tendrá una longitud de 16,6 km. Tanto el recorrido como los kilómetros (cada 2 km) estarán debidamente señalizados. Además del de la meta, habrá tres puntos de avituallamiento en los kilómetros 5,5 , 7,5 y 11,4, provistos de diferentes bebidas y comida para los corredores (en el primer punto solo bebida). Con el objetivo de generar menos residuos y proteger el medio ambiente, pedimos a cada participante traer un vaso reutilizable (que se pueda guardar en el bolsillo, por ejemplo).

3.- INSCRIPCIONES

Habrà dos opciones para participar en la carrera: individual o mixta por relevos (por parejas). Los corredores deberán concretar a la hora de hacer la inscripción en cuál de esas dos modalidades desean inscribirse. Solo se podrá inscribir en una modalidad. La inscripción tendrá un valor de 22€ en la prueba individual y 35€ en la carrera de relevos (por pareja) . El periodo de inscripción será del 26 de marzo de 2026 (18:00) hasta el 7 de junio (20:00) de 2026 (ambas fechas inclusive). Únicamente se podrá inscribir a través de la página web <https://www.kronoak.com/es>. Una vez hecha la inscripción, no se devolverá el dinero. La inscripción incluye: • Derecho a participar en la carrera. • Servicio de cronometraje mediante chip. • Seguro de accidentes. • Seguro responsabilidad civil. • Asistencia médica en carrera. • Participación en el sorteo de regalos. • Servicio de comida y bebida en los avituallamientos. • La posibilidad de usar los servicios que ofrecemos: consigna, servicios... Por último, en el caso de que un corredor participe en la prueba sin dorsal, o lo haga con dorsal de otra persona suplantando su identidad, la organización los sancionará y no participarán en las ediciones posteriores, quedando descalificado el que haya participado el día de la carrera. Por otra parte, si ocurriera algo, estos corredores no podrán ser atendidos por los medios que pertenezcan al organizador.

4.- CARRERA MIXTA DE RELEVOS

Para participar en esta modalidad, es necesario que una de las integrantes de la pareja, al menos, sea una mujer. El primer corredor deberá realizar el recorrido desde la salida hasta el fuerte de Txoritokieta (7,5 km), donde habrá una zona específica para dar el relevo. Para dar el relevo habrá que pasar el "testigo" al otro corredor, ese testigo es una especie de "chip" que los corredores tendrán que llevar en el tobillo. Una vez que el testigo pase de uno a otro, el segundo corredor llegará desde el fuerte de Txoritokieta hasta la meta de Altza, donde habrá que entregar el testigo a los organizadores. Si por cualquier motivo, la pareja no entregara el testigo al finalizar la carrera, la pareja tendrá que cubrir el gasto del mismo (7 euros).

5.- ENTREGA DE DORSALES

Las bolsas (con los respectivos dorsales) se repartirán en el pórtico de la iglesia el día de la carrera, de 7:30 a 9:15. Los dorsales deberán colocarse en el pecho: deberán estar bien visibles, ir enteros y sin dobleces.

6.- CONSIGNA Y DUCHAS

Habrà opción de dejar las mochilas en el pórtico de la iglesia, en la misma plaza. Las mochilas estarán supervisadas en todo momento por dos voluntarios. Asimismo, las duchas y vestuarios estarán cerca de la plaza.

7.- CATEGORÍAS

Solo podrán participar corredores mayores de 16 años. Habrá dos categorías: • Absoluta (entre 16 y 44 años) y Veteranos (a partir de 45 años de edad) en categoría general y femenina. • En la prueba de relevos habrá una única categoría.

8.- CLASIFICACIÓN

Kronoak se encargará de cronometrar la carrera. Se descalificará: • a quien tome atajos o no realice todo el recorrido, • a quien tire basura en cualquier lugar y no en las zonas señalizadas, • a quien no respete la fauna y la flora, • a quien mantenga una actitud antideportiva hacia los demás participantes, • a quien no haga caso a las indicaciones de la organización, • a quien corra sin dorsal, • a quien lleve el dorsal de otra persona y • a quien haga omisión de socorro con otro corredor o no avise de ello a la organización.

9.- PREMIOS

- Para las tres primeras personas de la clasificación general, y las tres primeras mujeres. • A la primera persona veterana y a la primera mujer veterana. • También habrá premio para la primera persona altzatarra y la primera mujer altzatarra.
- En la carrera de relevos, habrá premios para las tres primeras parejas.

10.- REGALOS

La bolsa del corredor contará con varios productos de los patrocinadores que hacen posible la carrera, así como de algunos productos propios de la organización.

11.- SEGURIDAD

La organización velará por que la prueba se desarrolle en orden y disciplina, contando para ello con la ayuda de los voluntarios y Cruz Roja. La organización podrá desviar o cambiar el recorrido de la carrera o suspenderla debido a las inclemencias meteorológicas o a otros factores que así lo obliguen.

12. RESPONSABILIDAD

Todos los participantes inscritos en la carrera de Txirrita Mendi Lasterketa entienden que participan voluntariamente y bajo su propia responsabilidad en la prueba. Cada corredor asumirá el riesgo que implica la actividad deportiva. Se recomienda realizar un reconocimiento médico previo a todos los participantes. Por otra parte, la organización dispone de un seguro de responsabilidad civil y de accidentes para los participantes. Sin embargo, nunca se hará responsable de los accidentes que se deriven de un padecimiento o tara latente, imprudencia, negligencia, inobservancia de las normas y del reglamento, así como los producidos en los desplazamientos al y desde el lugar en que se desarrolle la prueba. Los participantes exoneran, renuncian, eximen y convienen en no denunciar a la entidad organizadora, colaboradores, patrocinadores y otros participantes, de toda responsabilidad civil para con los participantes y sus herederos. Será obligación de todo participante auxiliar al participante que requiera ayuda, así como avisar de los hechos en cualquier punto de control.

13.- CONTROLES

La organización pondrá puestos de control en el recorrido y será obligatorio pasar por ellos.

14.- MEDIO AMBIENTE

La carrera se desarrollará por zonas de monte y bosques naturales. Por lo tanto, para cuidar debidamente el medio ambiente, los participantes deberán arrojar la basura únicamente en las bolsas de basura de las zonas de avituallamiento. Por otra parte, es fundamental tanto respetar la fauna y la flora como no tomar atajos en el recorrido. Normas y obligaciones para los y las participantes, relacionadas con el respeto y cuidado del medio natural: • Respetar el entorno. No dañar los recursos naturales, geológicos, culturales... • Respetar el itinerario establecido y balizado por la organización, no saliéndose de éste. • No tirar basura (desperdicios, envolturas, alimentos, material, ...) salvo en los lugares habilitados por la organización. • Remitir a la organización cualquier conducta medioambiental negligente de otros participantes. El incumplimiento de estas normas medioambientales será motivo de penalización y/o descalificación.

15.- DERECHOS DE IMAGEN

Todo participante autoriza a la organización a utilizar y publicar libremente toda fotografía o vídeo grabado en el contexto de la carrera.

16.- PROTECCIÓN DE DATOS

Los participantes dan su consentimiento para que la organización de la prueba trate, con finalidad deportiva, sus datos de carácter personal.

17.- APROBACIÓN DEL REGLAMENTO

El mero hecho de participar en la prueba significa la aceptación de este reglamento.